**BERAKO ALKATEAREN EBAZPENA, MANTENTZE-LANETAKO ETA ZERBITZU ANITZEKO OFIZIAL LANPOSTUETAKO BEHARRAK BETETZEKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAK EGITEKO IZANGAIEN ZERRENDA ONARTZEN DUENA.**

Abuztuaren 13ko 243/2024 zenbakia duen Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onartu ziren funtzionario araubideko mantentze-lanetako eta zerbitzu anitzeko ofizial lanpostu bat betetzeko deialdia eta oinarriak. Deialdi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2024ko irailaren 3ko 179. zenbakian.

Oposizioa bukatu ondoren, epaimahaiak, 2025eko maiatzaren 29an egindako bileran, parte-hartzaileen behin betiko kalifikazioa onartu zuen.

Uztailaren 22an emandako 227/2025 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, onartu da gainditu duen izangai bakarraren aldeko izendapena.

Deialdiaren oinarriek ezartzen dute aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda bat eratuko dela, eta bertan hautapen prozedura gainditu eta lanposturik lortzen ez duten guztiak agertuko direla, lortutako puntuazioaren arabera.

Proba guztiak gainditu dituena izangai bakarra izan dela kontuan hartuta, Udalak eskainitako zerbitzuen esparruan sortzen diren beharrak betetzeko beharrezkoa da oposizioa gainditu ez baina proba teorikoa gainditu zuten izangaiekin zerrenda osatzea.

Zerrenda eratzeak, funtzio publikoan sartzeko Konstituzioan jasotako printzipio hauek errespetatzen ditu: publizitatea, berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna.

Horiek horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 artikuluak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

**RESOLUCIÓN DEL ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE BERA, POR LA QUE SE APRUEBA LA LISTA DE PERSONAS ASPIRANTES A LA CONTRATACIÓN TEMPORAL PARA CUBRIR NECESIDADES EN LOS PUESTOS DE TRABAJO DE OFICIAL DE MANTENIMIENTO Y SERVICIOS MÚLTIPLES.**

Mediante Resolución de Alcaldía nº 243/2024, de 13 de agosto, se aprobó la convocatoria y sus bases para la provisión, mediante oposición, de una plaza de oficial/a de mantenimiento y servicios múltiples en régimen funcionarial. La citada convocatoria se publicó en el Boletín Oficial de Navarra número 179, de 3 de septiembre de 2024.

Una vez concluida la oposición, el Tribunal calificador, en reunión celebrada el día 29 de mayo de 2025, aprobó la calificación definitiva de las personas participantes.

Mediante Resolución de Alcaldía número 227/2025, de 22 de julio, se ha aprobado el nombramiento para cubrir la plaza a favor de la única persona aspirante aprobada.

Las bases de la convocatoria establecen que se constituirá una lista de aspirantes a la contratación temporal, en la que figurarán todas aquellas personas que hayan resultado aprobadas sin plaza, por orden de puntuación obtenida.

Teniendo en cuenta que ha sido un único aspirante el que ha aprobado todas las pruebas, la cobertura de las necesidades que surjan en el ámbito de los servicios prestados por el Ayuntamiento hacen necesario constituir la lista con los aspirantes que no han superado la oposición, pero aprobaron la prueba teórica.

La constitución de la lista respeta los principios constitucionales de publicidad, igualdad, mérito y capacidad en el acceso a la función pública.

En base a lo expuesto, en ejercicio de las atribuciones que tengo conferidas por el artículo 21.1 de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases

SINATZAILEA
Berako Udaleko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2025/07/22

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2025/07/22

ZIGILUA
Iragarki-ohol elektronikoan argitaratua
2025/07/22

honako hau

**EBAZTEN DUT:**

1. Mantentze-lanetako eta zerbitzu anitzeko ofizial lanpostuetan sortzen diren beharrak betetzeko aldi baterako kontratazioko izangaien zerrenda onartzea. Proba teorikoa gainditu zuten pertsona hauek osatzen dute zerrenda hori (deitzeko hurrenkeraren arabera):

de Régimen Local,

**RESUELVO:**

1.- Aprobar la lista de aspirantes a la contratación temporal para cubrir las necesidades que se produzcan en los puestos de trabajo de oficial/a de mantenimiento y servicios múltiples, compuesta por las siguientes personas que aprobaron la prueba teórica (por orden de llamamiento):

| HURRENKERA/ ORDEN | IZANGAIA/ ASPIRANTE |
|---|---|
| **1** | Mutuberria Iturria, Patxi |
| **2** | Iparraguirre Larrañaga, Iñigo |
| **3** | Larretxea Agirre, Oier |

2. Ebazpen hau argitaratzea Berako Udalaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan.

3. Horren berri ematea Udalbatzaren Osoko Bilkurari, egiten duen lehenengo ohiko bilkuran.

Beran, dokumentu honen sinadura digitalaren egunean.

2.- Publicar la presente resolución en el tablón de anuncios de la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Bera.

3.- Dar cuenta al Pleno de la Corporación en la primera sesión ordinaria que celebre.

En Bera, a la fecha de la firma digital del presente documento.